



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

La Iglesia auzoa 3 – 01476 ARESPALDITZA-AIARA

(ARABA)

Telefonoa: 945399013 Faxa: 945399331

Emaila: info@aiarakoudala.eus

www.aiarakoudala.eus

AIARAKO UDALAK 2019ko EKAINAREN 12an EGINDAKO EZOHICO OSOKO BILKURAREN AKTA

PRESIDENTEA:

Gentza Alamillo Udaeta jauna

ZINEGOTZIAK:

Iñigo Pinedo Vadillo jauna

José Antonio Bartolomé Pesquera jauna

Montserrat Angulo Solloa andrea

Josu Artetxe Arana jauna

Nerea Goti Valle andrea

Lauren Uria Peña jauna

Esteban Hernando Landa jauna

Iratxe Parro Uzquiano andrea

Iraida Saenz de Lafuente Blanco andrea

Arespalditzan, udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hemeretziko ekainaren 12ko 14:50ean Udala ezohiko osoko bilkuran bildu zen, Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunaren zuzendaritzapean eta aipatutako zinegotziak bertaratuta, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluari jarraikiz. M^a del Carmen Rojo Pitillas izan zen saioko idazkaria.

EZ DA BERTARATU:

Susana Martín Benavides andrea

IDAZKARIA:

M^a del Carmen Rojo Pitillas andrea

Alkate jaunak ongietorria eman die guztiei, eta, iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako gaiak eztabaidatu eta bozkatu dituzte.

1º.- Onestea, hala badagokio, 2019ko maiatzaren 23ko ohiko osoko bilkurako akta.-

Iratxe Parro Uzquiano zinegotziak (AIARA BATUZ) hartu du hitza, eta argitu du galde-eskeen atalean honako hau adierazten denean: “*Iratxe Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza, azaltzeko ez direla sakonduko aurkeztu diren mozioak*”, gaia beste bilkura batean jorratu zelako esan zuela hori.

Galde-eskeen txandan, Nerea Goiti Valle zinegotziaren esku-hartzeari dagokionez (“*Nerea Goiti Valle zinegotziak (EH-BILDU) adierazi du batzar batean gaiak jorratzen direla, eta, askotan ez direnez ekarpenak egiten, ez dakite zein den AIARA BATUZ alderdiaren iritzia*”),

Iratxe Parro Uzquiano andreak adierazi du bere alderdiak iritzi argiak izaten dituela batzarretan.

Azkenik, Josu Artetxe Arana (EH-BILDU) zinegotziaren honako esku-hartze honi dagokionez: “*Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du desegokia iruditzen zaiola EAJren bideo bat, alderdiak bete ez dituen gauzak goraiatzaren baitira. Mendietako ur-hornidurari buruz ari da, non berak zuzendu zituen Foru Aldundiarekiko negoziaketak. Bi urteren ondoren, azkenik % 30 eta % 70eko finantzaketa lortu zen. Horrez gain, aurreko agintaldian abiarazi ziren aholkularitza medikoa eta botikina ere aipatu ditu*”, Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du alderdiak esan zuela ados zeudela haiekin.

Esku-hartzeak amaitu ondoren eta egindako oharrak kontuan hartuta, aho batez onartu da akta.

Ez direnez gai gehiago jorratu, alkate-presidenteak amaitutzat eman du saioa 14:52an, eta adostutako erabakiak jasota geratu daitezten nik, idazkari moduan, horren fede ematen dut, Arespalditzan, bi mila eta hemeretziko ekainaren hamabian.

O. E.
ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: M^a Carmen Rojo Pitillas.